

# c.1900-36

## Lekeitioko postalak

Postalak dira, argazkiekin batera, orduko Lekeitio zelakoa zen jakiteko iturri nagusia eta Lekeitio kostaldeko herri "turistikoa" izanik, itsaso bete postal heldu zaizkigu.

Postalak milaka, baina ikerketak zero. Ezta sailkapenik txikiena ere. Interesgarria izango litzateke jakitea bidalitakoak diren ala ez, nora bidalitakoak, noizkoak eta noiz igorritakoak, kopuruak...

Tarjeta postal XIX. mendeko bigarren erdialdean "asmatu" zen, baina irudidunak XIX. mende amaieran agertu ziren. Espainian *Hauser y Menet* etxea izan zen 1892 aldean lehen posta txartelak argitaratu zituenak: bistak eta monumentuak. 1901etik aurrera modan jarri ziren, besteak beste, bidaltzean karta baten erdia ordaindu behar zelako. Hasieran atzealde guztia erabiltzen zen zigilu eta hartzailearen helbidea jartzeko eta aurrealdean idazten zen mezua. 1905-6tik aurrera ifrentzua bi zatitan bereizi zen, erdia zigilu eta helbiderako eta beste erdia mezurako. Postalak arrakasta itzela lortu zuen, 1902rako *Hauser y Menet* etxeak hilean 500.000 gora postal inprimatzen zituen. Eta ez ziren bakarrik! Erabili ditugun postalen artean hainbat etxe aurkitu ditugu: Euskal Herriko *Landáburu Hermanas* (Cruz 11, Bilbao), *Valentín Hervias* (Eibar), *L.G.* (Bilbao), edo *C. Elordi* lekeitiarra, kanpoko *L. Roisin* (Barcelona), *Thomas* (Barcelona, Fotografo M. G.), *Lacoste*, *Castañeira y Alvarez*...



### LEHEN GARAIA 1900-06

Hasiera batean postalen aurreko aldean idazten zen, atzeko alde osoa helbidea idazteko baitzen, horregatik ezagutzeko oso errazak dira. Orduko postal batzuk heldu zaizkigu bertoko bi etxeri esker, *Landáburu Hermanas* eta *Valentín Hervias*, baina biek ere *Hauser y Menet* etxe handiaren argazkiak erabili zituzten.

### Landáburu Hermanas

Bertoko etxeen artean *Landáburu Hermanas* da akaso inportanteena, baina horretarako *Hauser y Menet* etxearen argazkiez baliatu zen. *Landáburu Hermanas* enpresak Bilboko eta Bizkaiko argazki-liburu bi argitaratu zituen *Hauser y Menet*-en argazkiak erabiliz 1890eko hamarkadan. Postalei dagokionez, *Todo colección* web-orrian 1896ko Bilboko postal bat (Recuerdo de Bilbao) aurkitu dugu lau bistaz osatua.

Datazioa fintzeko asmoz, uste dugu *Landáburu Hermanas*, Cruz 11. Bilbao. -Fot. H. y M -M dakartzatenak *Hauser y Menet*-en monograma atzean daramatzatenak baino arinagoak direla<sup>1</sup>.

<sup>1</sup> Tarjeta postalak datatzea ez da erraza. Argazkiaren data, inprimatze data, eta bidaltze data, bidalia izan bazen, bereiztu behar dira. Argazkia atera ostean postal bihurtu, saldu eta bidali artean urte mordo igaro zitekeen. Horregatik bidaltze data batzuetan lagundu beharrean errarazi egiten dute. Kontuz ibili behar gara, beraz.



Lequeitio (Vizcaya), Landáburu Hermanas (1903-8-5)

Postal mota ezberdin bi bakarrik aurkitu ditugu, biak Lu-  
mentxatik ateratako ikuspegi orokorrak baina garai ezber-  
dinetakoak. Diferentzia nagusia da lehen garaiko postalean  
ez dela ageri 1905ean egingo zen salbamendu etxea. Badi-  
rudi Lekeitioko postalak ez zeudela enpresa horren lehen-  
tasunen artean.

### Valentin Hervias

Valentin bera argazkilaria zen baina *Hauser y Meneten* ar-  
gazkiak erabili zituen. Eibarko enpresa hau *Landaburu*  
*Hermanas* baino apalagoa<sup>2</sup> zen arren, zazpi postal mota  
ezberdin ezagutzen ditugu, denak lehen garaikoak (1906  
aurrekoak). Baliteke *La Basílica* izenburua duen postala iza-  
tea ezagutzen dugun zaharrena (1901-10-5).



Ez diogu *Todo colección* webguneko ur-marka kendu propaganda apur bat  
egiteko. Hemen agertzen diren postal asko eta asko leku horretan ero-  
siak izan dira. Ezin dira keixatu, bezero onak gara.

<sup>2</sup> *Todo colección* webgunek salerosketak egiteko baino gehiagotarako balio du. Matema-  
tikek gutxitan esaten dute gezurrik: *Landaburu Hermanas* etxeak saldutako eta salgai  
dituen postalen kopurua= 524, *Valentin Hervias* etxeak= 36 (2020-3-21).

### BIGARREN GARAIA 1906-36

#### Thomas eta Lacoste etxeak

Manuel Garavillaren argazkiak *Thomas* (Barcelona) eta *La-  
coste* etxeek erabili zituzten, Thomasek postaletan “Fotó-  
grafo M. G.” jarriz eta Lacostek autoretza hori postaletan  
erakutsi barik. Etxe handiak ziren biak eta normala zen en-  
presaz kanpoko argazkilaria erabiltzea eta Garavillaren ar-  
gazkiek kalitatea soberan zuten.

Baliteke Manuel Garavillak hasiera batean Thomasi sal-  
du izana argazkiak komertzializatzeko eskubidea eta be-  
randuago Lacosteri, baina ezin dugu frogatu. Dakiguna da  
Thomas etxeak, hasiera batean M. G.ren argazkiak erabili  
zituela eta gero serie berri bat ateratzean M. G. “sinadura”  
desagertu zela. Postal “modernoak” ziren, aurki garbiarekin,  
baina nahiko zaharrak, seguruenik 1915 aurrekoak<sup>3</sup>. Thoma-  
sen bigarren seriea, berriz, geroagokoa da (haietariko bat  
1927an bidalitakoa da).



<sup>3</sup> Dauzkagun datu apurrek hala adierazten digute: Thomasen (M. G. fotógrafo) postal  
bat 1908-8-18an bidalitakoa da, Lacoste etxea desagertu egin zen 1915ean Juana Roigen  
eskuetara pasatu zenean (monograma J eta R gurutzatuta), Manuel Garavillaren argaz-  
kiak mendearen lehen hamarkadakoak dira...



### Thomas etxea

Josep Thomas i Bigas (1853-1910) fotografo eta inprimatzaile katalanak 1880an *Fototipia Thomas* fundatu zuen eta 1950eko hamarkadara arte iraungo zuen negozio familiarrak. 1901etik aurrera posta txartel ilustratuen negozioan sartu zen eta Espainia osoko paisaia eta hiriak argitaratu zituen. *M. G.* serieko 17 bat postal ezberdin ezagutzen ditugu eta 5 beste seriekoak. (*Todocolección* webguneak 37.500etik gora postal sorta ditu saldutako eta salgaien artean).

### Lacoste etxea

José Lacoste Borde (1872-?) fotografo frantsesa 1893an heldu zen Espainiara eta Laurent etxea erosi zuen 1900ean. Hurrengo urteetan *Antigua Casa Laurent* eta *J. Lacoste y Comp.* (Sucesores) markak erabili zituen eta ospe handia lortu zuen. 1915ean I. Mundu Gerran parte hartu behar izan zuen eta argazkilaritza utzi. Urte horretan, 1915, Juana Roigek erosi zuen etxea. Bueltatu zen Lacoste Espainiara baina ez zuen jarraitu argazkilaritza munduan. Lekeitioko 19 postal mota heldu zaizkigu. (*Todocolección*ek 6.450 postal ditu).

### Castañeira y Alvarez

Madrileko etxe honek ere Lekeitioko postal batzuk argitaratu zituen. Guk momentuz 5 kasetakoak aurkitu ditugu. Badakigu 1915 aurrekoak direla urte horretan beste bazkide bat gehitu zitzairenean enpresaren izen komertziala aldatu zutelako, *Castañeira, Álvarez y Levenfeld*. (*Todocolección*ek 5.900 postal ditu).



### C. Elordi

Celestino Elordik Gamarra plazako 4. zenbakian, drogeria zabaldu zuen 1913an eta badirudi berak editaturiko postalak saltzen zituela<sup>4</sup>.

Berriatuarra jaiotzaz, Lekeitiara 1904 aldean etorri zen. Koloredun postal sorta ederra argitaratu zuen (12 dira orain arte ezagutzen ditugunak). Madrilen ikasle ginela aurkitu

<sup>4</sup> Ez dakigu zehazki noizkoak diren postalak baina bizpahiru data aurkitu ditugu: 1914-7-22/1915-8-19/1919-3-19.



El Pueblo Vasco, 1922-9-13



### Roisin

Lucien Roisin Besnard (1884-1943) argazkilaria frantsesak Bartzelonan fundatu zuen enpresa, *Postales Roisin* edo *La Casa de la Postal*, oso ezaguna izan zen bere garaian. Lekeitioko postal mordoak argitaratu zuen, guk dakigula 10 bistaz osatutako liburuxka bat eta beste serie bi, baliteke 20na bat argazkirekin.

Betiko arazoa dugu, data eza baina seguruenik 1920-36 artekoak dira.



## L. G.

Bilboko enpresa honen 7 postal klase ezberdin heldu zaizkigu. Bat esaterako 1924-6-7koa, beste bat 1929-7-1ekoa. Garai horretakoak izango dira gutxi gorabehera.



### Editore gabea

Azkenerako utzi dut etxe ezezagun -ez da ageri editorea- baten postalak, koloredunak eta kolorebakoak. Hemengo norbait izan dai-tekeelakoan nago baina...

Badirudi serie bakar bat dela bi bertsiotan, koloreduna eta kolore gabea -postal batzuek behintzat argazki, titulu eta tipografia bera dute-. Zuri-beltzeko 17 postal mota ezberdin aurkitu ditugu eta 9 koloredun.

Datari dagokionez betiko oztupoekin aurkitzen gara. Plazako bis-ta batean kioskoa ikusten da estaldu barik oraindik, beraz, argazkia behintzat, 1914 aurrekoa da. Baina etxe ezezagun honetako beste postal batzuk beranduago bidalitakoak dira, bi behintzat 1926an eta 1927an.

*Arribas* etxea ere aipatu behar dugu. Postal dezente heldu zaizki-gu Errepublikasasoi bueltakoak (ikus 294. or.).

Amaitzeko aipatuko dugu postal gutxi batzuk aurkitu ditugula *Ceferino Sarasqueta, F. Eizaguirre* (Marquina) lehen garaikoa, *Madyma* edota *Manipel* etxeetakoak eta gogorarazi hemen idatzi dena hur-bilketa baizik ez dela. Jakina, sakondu beharra dauka, ea baten bat animatzen den!

Etxeparek zioen moduan: *Debile principium melior fortuna sequatur*



## KATALOGOA (behin-behinekoa)

**1- Landaburu Hermanas:** Lequeitio (Vizcaya)

**2- Valentín Hervias:** La Basílica (1901-10-5)/ Lequeitio (Vizcaya)/ Puente Isunsa/ Hospital y Casa Misericordia/ Lequeitio (Vizcaya)/ Vista parcial/ Casa Consistorial

**3- Lacoste:** 1 Vista general/ 2 Estación de salvamento/ 3 Puente de Isunza/ 4 Procesión de rogativa/ 5 Faro/ 6 Basílica y alameda/ 7 Palacio de la playa/ 8 Puerto/ 9 Calle de Abaroa/ 10 Llegada de los potines sardineros/ 11 Procesión de N. S. de la Antigua/ 12 Zubieta/ 13 Retablo de la basílica/ 14 Festejos de San Antolín/ 15 Procesión de N. S. de la Antigua/ 16 Olalde/ 17 Fiesta de los gansos/ 18?/ 19 Prueba de bueyes/ 20 Vista general

### 4- Thomas

**M. G.:** Vista parcial/ Retablo de la basílica/ Basílica (1912an bidalia)/ Rompeolas/ Rompeolas/ Vista general/Faro de Santa Catalina/ Puente de Yzuntza/ Hospital y Hospicio/ Cucuñas por San Antolín/ Automóviles de Lequeitio/ Semáforo/ Vista parcial/ Costumbres vascas/ Puente de Yzuntza/ Procesión Ntra. Sra. de la Antigua/ Procesión Ntra. Sra. de la Antigua. (Tituluak batzuetan errepikatu egiten dira, baina ikuspegi edo argazki ezberdinak dira)

**Besteak:** 1 Vista parcial/ 4 El puerto/ 5 El muelle y vista parcial/ 9 Escolape/ 5 El Puerto (1927an bidalia)

**5- Castañeira y Alvarez:** Lequeitio. Entrada al pueblo/ El Puente de Izuntza y el Astillero/ Hospital y Hospicio/ Ayuntamiento y Plaza de los Fueros/ Vista general del Puerto

**6- C. Elordi:** Parque del rompeolas/ Iglesia parroquial/ Plaza de la Constitución/ Plazuela de Gamarra/ Vista panorámica/ Vista de Escolape/ Entrada por el portal de Atea/ Avenida de Don Pascual/ Casa del Sr. Algorta y plazuela de Gamarra/ Vista del puerto/ Frontón público/ Lavadero de Arronegui y escabecheeria de decómica (sic)

**7- Roisin:** 1 Vista general del puerto/ 3 La Varra (sic)/ 5 Playa/ 6 Puente Mendaja/ 7 Parroquia de Santa María/ 7? Iglesia parroquial/ 8 Puerta de la iglesia/ 9 Plaza de los Fueros (2-10-1936)/ 11 Puerto/ 12 Entrada al puerto/ 13 Muelle y el Semáforo (21-11-1936)/ 14 Puerto/ 14 Puerto (11-10-1936)/ 15 Puerto/ 17 Vista parcial/ 19 El Muelle/ 20 La Iglesia (Seguruenik bi serie nahasturik)

**Lequeitio 10 vistas:** 1 Iglesia parroquial/ 2 El puerto/ 3 El puerto y la... / 4 Vista parcial del puerto/ 5 El puerto/ 6 La bahía y entrada al puerto/ 7 Playa de Carraspio/ 8 La isla y la playa de Carraspio/ 9 Vista general del puerto/ 10 Vista parcial (Hortxe-hortxe dabilta, igual Errepublikasasoi garaikoak)

**8- L. G.:** Vista general/ Vista parcial del Puerto/ Vista desde la carretera de Curlundin (sic)/ Plaza de los Fueros/ Vista parcial/ El Muelle/ (Vista de la Iglesia desde el Palacio de Isabel II)?

### 9- Editore ezezaguna


**Koloreztatu gabeak:** Río Lea/ Desembocadura del río Lea/ Hospicio y hospital/ Hospicio y Hospital (ez naiz erratu)/ Faro de Santa Catalina/ Paseo de la Alameda/ Vista parcial del puerto/ Vista de la bahía/ Casa-Ayuntamiento/ Vista general del puerto/ Vista parcial/ Palacio de Urribarren y Calvario/ Cucuñas del mar/ Vista general/ Vista parcial del puerto/ Puente Yruntza (sic)/ Vista parcial

**Koloreztatuak:** Vista parcial/ Vista general/ Paseo de la Alameda/ Casa-Ayuntamiento/ Desembocadura del río Lea/ Vista parcial/ Vista de la bahía/ Virgen de la Antigua y retablo del altar mayor/ Palacio de Urribarren y Calvario





Lehen garaiko postalak








1-IX-1905 Carísimo D. Enrique: Aquí tiene V. el pueblecillo en que nací y he pasado como un bienaventurado mis vacaciones. Dentro de unos días iré a saludar á mi Obispo, á quien todavía no conozco; y luego saldré con dirección á Francia, para llegar á Tours el 15 ó 16 del corriente mes de Septiembre. Mis afectuosos saludos á su Sra y á su padre. Muy de ustedes R. M. de Azkue



+ San Sebastian 23-IX 1904  
Dentro de la próxima semana saldré dios mediante para Tours. He pasado muy bien mis vacaciones. Tenga V. la bondad de saludar á su señor padre y esposa, comunicando tambien mis recuerdos á Mr. Jahan.  
Hasta muy pronto. R. M. de Azkue





## C. Elordi



Lequeitio. Plazuela de Gamarra



Lequeitio. Casa del Sr. Algorta y plazuela de Gamarra



Lequeitio. Avenida de D. Pascual



Lequeitio. Entrada por el portal de Atea



Lequeitio. Vista del Escolape



Lequeitio.  
Plaza de la Constitución



Lequeitio. Iglesia Parroquial



Lequeitio.  
Vista del Puerto

Erabili ditugun postalak  
Lekeitioko Udal Artxi-  
bokoak eta bilduma  
pribatuetaoak dira,  
Isaias Gezuraga, Koldo  
Leniz eta Aitor Iturbe-  
ren bildumetakoak.

Lequeitio.  
Parque del rompe  
olas



Lequeitio. Vista panoramica



Lequeitio.  
Fronton publico



Lequeitio. Lavaderos de Arronegi y escabecheria de Ocamica